

TOKIKOM

2018ko ekaina | 182. zenbakia

ai kor!

txorierriko aldizkaria

Rafael Mendia

Konprometitua



ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefonoa: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____



Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordeko dira. Fitxategiaren erantzulea TOTOKAN TXORIERREKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuok kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horretarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

-  **4** Eritxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Irudietan... Iratxe Azkona, argazkilaria
-  **12** Gurean izan da... Hesian taldea
-  **14** Gaztea eta... Hakima Flissi Velez, abeslaria
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Gai nagusia... Rafael Mendia
-  **22** San Pedro-Santa Luzia Loiuko jaiak
-  **26** Gerrako argazkiak
-  **29** Babestutako edukia... Tai-xi ikastaroa, Derion
-  **30** Gure Esku Dago ekimenaren giza katea
-  **32** Babestutako edukia... Optica Moderna
-  **34** Teknologia... Zientzia denon eskura
-  **35** Aikorrizketa... Ekaina: suspentsoa ala bikaina?
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



22 San Pedro-Santa Luzia Loiuko jaiak



26 Gerrako argazkiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN, Txorie-
rriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili,
Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea

Kolaboratzaileak: Ana Mezo, Belen Gana, Idoia Andrés, Oihane Goienetxe,
Aner Mentxaka, Jon Jauregi, Jon Goikouria Larrabeiti, Xabier Díaz, Itallen
bertso eskola, Gaizka Peñafiel eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako
esanen edota eritxien erantzukizunik.



Erabakitzeako eskubidea

Han eta hemen entzuten diren berbak dira, egin berri dugun giza katean, Gasteizko Parlamentuan Autogobernu Ponentzian, oraintsu Larra-betzun egin den Independentzia Egunean, baita Iruñean duela pare bat aste egindako Alternatiben Herria ekimenean ere. Baina, erabakitzeako eskubidea zergatik eta zertarako.

Aspaldian berbon zergatiei eta zertarakoei erantzun zehatzak emateko aha-legendak egin dira. Zergatiak askotarikoak dira. Batzuk gaurtik jarri daitezke abian helburuak eta metodologiak zehaztu ondoren: euskararen, kultura adierazpen eta hezkuntzaren gainekoak, ingurumenaren zaintzeari dagozkionak, baita kanpotik datozeinei harrera egiteko moduei, energia kontuei, eredu ekonomikoari dagozkionak, berdintasun eta pentsiodunen arazoen eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzearen ingurukoak eta abar.

Beste batzuk aurrekoen lorpenaren ondorioz etorriko dira, animikoak eta ja-

rrerazkoak dira: edertasunaren zainketa, herri jakinduria eta memoriaren kontzientzia hartzea, baita ugaritasunaren banaketarena ere, ekosistemari maitasuna adieraztea, justiziaren ulermena, ordena eta ziurtasunaren eraikuntza, besteenganako pazientzia izatea eta abar.

Baina, erabakitzeako eskubideak besterik ere ekarriko luke, herri izaera berri bat eta ikuspegi kolektiboaren zentzu zabalagoa izatea lortuko genuke. Norberarengandik kolektiboaren ikuspegira jauzi handiagoa egingo genukeelako. Herriarrok ahalduz eta fiskalizatze gaitasunak izango genituzke, esku-hartzeak abantaila handiak dituelako. Gaur egungo egitura politikoei eta juridikoei garden eta ustelkeria arrisku barik funtzionatuko lukete. Politikari eta epaile batzuek ez lukete izango edozer egiteko lizentzia osoa. Altsasuko moduko kasurik ez litzateke gertatuko. Banakotasun egoistak agirian geratuko lirateke beraz, osasungarriagoa eta demokratikagoa da. Gure eskubide



ANA MEZO
Irakasle erretiratua

sozialak eta politikoak blindatuago egongo lirateke.

Edozelan ere, gaur egun aldaketa handirik egin barik hasi gaitezke esku-hartzea praktikan jartzen, kontsultak eta erreferendumak modu naturalean egiten, Estatuaren Europa honetako herrialde batzuetan egiten diren moduan, esaterako Suitzan.

Guk erabakiz gero, hauek danak geure egingo genituzke eta hala joango ginatzen jende zorientuagoa herri libre batean izaten.

Aurten darabilgun udaberri luze honetan, hainbat manifestazio eta beharrezko aldarrikapen egiten gabilta: batetik, presoen hurbilketa; bestetik, emakumeen eta gizonen arteko parekidetasuna; bitartean soldata duina eskatzen dabilta horrenbeste kolektibo; ezin ahaztu, Gure Esku Dago ekimena, non gure herri izaera aldarrikatu dugun ...

Batean eta bestean parte hartzen ibili gara eta, askotan, parte hartzea itzel handia izan da. Baina emakumeen ekimenean izan ezik, ikusi dut ibilitakoen batzuek besteko adina berrogeita urtetik gorakoa izan dela. Gogoratzen dut, gure gazte saioan, manifestazioetan genbiltzanean, batzuek bestekoa hogeita pikokoa zela. Orduan "Noiz etorriko da adineko jendea

Udaberri beroa



BELEN GANA
Irakasle erretiratua

gurekin?" pentsatzen genuen. Orain, hirurogeita piko dauzkagunok aurpegi berdinak ikusten ditugu eta noiz etorriko diren gazte gehiago galdetzen dugu. Badago egoera bat non, zorionez, gazte jendeak gehiago erantzun duen: Altsasuko gertaera. Honetan, gurasoez gain, gazte jendearena izan da partaidetzarik nabarmenena.

"Hori politika da eta nik paso" dioten gazte zein helduei esango nieke politikak denean duela eragina eta erabaki hori ere politika dela; izan ere, ez aldarrikatzea ere politika estrategietan sartzen da. Horren parte izan gura duzue?



Goitioltzako jaiak

Aurreko urteetako eskema errepikatuko dute Lezamako auzoan, horiek arrakastatsuak izan ohi direlako. Horri lotuta, Enduro txapelketa eta paella txapelketa nabarmendu daitezke, jaietako ekintzarik erakargarrienetarikoa direlako urterik urte. Baita txakolinaren dastaketa ere. Gainera, iaz herri olinpiadak antolatu ziren lehenengo aldiz eta aurten ere egingo dira. Bestetik, esan beharra dago Goitioltzan urte batzuk jaiak antolatu barik eman ostean, aurten 15 urte bete direla jai-batzordea sortu eta jaiak antolatzen hasi direnetik.

Uztailak 13, barikua

- 18:30 Txupinazoa eta jaien hasiera.
- 18:30 Umeentzako puzgarriak eta apar-jaiak.
- 21:00 Umeentzako ikuskizuna.
- Diskofesta, Xaiborrekin.

Uztailak 14, zapatua

- 10:00 Mahaiak eta aulkiak banatzea.
- 12:00 Kurutze dantza taldearen emanaldia.
- 13:00 Paella txapelketan izena ematea.

- 14:30 Paellak aurkeztea.
- 15:00 Enduro txapelketa.
- 17:30 Enduro txapelketaren sariak ematea.
- 18:00 Herri olinpiadak.
- 20:00 Dantzaldia, Patxi eta Konpainiarekin.
- 22:00 Eonian elektrotxaranga.

Uztailak 15, domeka

- 13:00 Txakolinaren dastaketa, bertsoz eta magiaz jantzita.



Plana garatzen dabilta, Loiun etxebizitzak eraikitzeko

Ia 20 urte pasatu dira Loiun azken aldiz etxebizitzak eraiki zirenetik, eta bertako Udala plan partzial bat garatzen dabil, Hari-tzondo-Txiline sektorean askoz jota 450 etxebizitza eraiki ahal izateko. Sektore horrek 15,7 hektarea dauka eta, aurreikuspenaren arabera, Aransutegi errekar bitan banatuko du eremua. Etxebizitzak kolektiboak izango dira eta gehienez lau soilari edukiko dituzte.

Plan partziala udalbatzan onartu behar den arren, Udaletik jakinarazi dute prest dituztela ikerketa aeronautikoa eta ingurugiroari dagokiona. Ikerketa horiek agintari eskudunek aztertu eta onartu behar dituzte. Horri lotuta, aipatu beharra dago Udalak debekatuko duela Aransutegi errekar kaltea ekarriko dion edozein lana, "zubiak eta oinezkoentzako pasaguneak eraikitzeko beharrezkoak direnak izan ezik". Azaldu duten moduan, ekimen honek herritarren eskaerari erantzuna ematea du helburu.

a: Gaizka Peñafiel



AmAr
ileapaindegia

Astearte-ostiralea:
9:00-19:00
Laburubata:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06

BIDE-GORRI
CAFE-BAR

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatcan
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Hegalariak-k eta Derioko neskek Euskal Ligan jokatu dute

Hegalariak areto-futbol taldeak igoera lortu du eta datorren urtean Euskal Ligan jokatu du. "Lehenengo postuetan ibiltzea espero genuen denboraldi hasieran, baina igoera lortzea oso zaila da eta, horregatik, oso pozik gaude, zelan ez", azaldu digu Oskar Eguskiza taldeko teknikari laguntzaileak. Hegalariak taldea Liga irabazteko gertu egon da, lehenengoak puntu biko alde baina ez baitio atera. Pozgarri Derioko taldea hirugarrena izan da Ligan. Hegalariak taldeak azken jardunaldian hartu zien aurrea derioztarrei.

Datorren urteari begira, sondikoztarrek ez dute presiorik izango. "Jokalariek eta Claudio García entrenatzaileak taldean jarraituko dute, eta ez dut uste fitxaketarik egingo dugunik. Beraz, mailari eustea dugu helburu, baina ahalik eta gorenen bukatzen saiatuko gara. Argi dago maila ezberdina dela eta, hori dela-eta, aldaketak egongo direla: bidaia luzeagoak, apur bat garestiagoa da... Tira, moldatuko gara".

Derioko neskek

Era berean, Derio emakumezkoen futbol taldeak 14. postuan bukatu zuen Euskal Liga eta, ondorioz, Lurralde mailara jaitsi zen. Hala ere, Arizmendi KE Leintz taldeak -Ligako 10. sailkatuak- ez du datorren urtean jokatzeko jarraituko eta bere lekua Deriok hartuko du 2018-2019 denboraldian. "Lesio larriak eta luzeak izan ditugu eta, horregatik, jokalariek garrantzitsu batzuek ezin izan dute hainbat partidatan jokatu. Jokalariek guztiak egon garenean, maila ona erakutsi dugu eta ez gara arerioak baino okerrago ibili. E-mailtzak ez dira lanarekin bat etorri", esan digu Ainhoa Gana jokalariek.



Txorierriko bidegorria aldarrikatzeko martxa

Ekintza Bizi Txorierriko plataformak antolatutako ekimenak, Zorribike Lezamako elkarteari eta Txirrin-Txirrin Zamudioko elkarteari laguntzarekin, eta martxan, besteak beste, hauek hartu zuten parte: txirringulariek, zenbait familiak, Igotz López Zamudioko alkateak eta Jon Ander Aurrekoetxea Lezamako alkateak.

Martxak Txorierriko herri guztiak baten dituen bidegorria atontzea aldarrikatzeko eduki zuen helburu, eta parte-hartzaileak tropel bitan atera ziren goizeko 11:00etan. Tropel bat Sondikatik irten zen, eta bestea, Larrabatzutik. Txirringulariak Zamudion, Santimami ermitan, elkartu ziren eta gero indarrak berritu zituzten Bidekoetxe parkean.

Goio Sanz larrabetzuarra antolatzaileetarikoa bat izan zen. Azaldu zuen moduan, Bizkaiko Foru Aldundiak orain dela urteak onartu zuen Txorierriko bidegorria egiteko proiektua, "baina hori kaxoi baten barruan gelditu da". Gainera, esan zuen proiektu merkea dela, beste lan erraldoi batzuekin alderatuta. Sanzen ustez, Son-

dika, Loiu, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu baten dituen bidegorriak txirringulariei ez ezik beste lagun batzuei ere ekarriko dizkie onurak. "Familiak lasaitasunez eta segurtasunez ibili ahalko liriteke bizikletaz, Txorierriko langileek eta institutuko ikasleek ere bizikletaz egin ahalko lituzke joan-etorriak, Donejakue bidea bizikletaz egiten duten erromesak erosoago ibiliko liriteke...". Horri lotuta, Zamudio eta Derio artean atondu den bidegorria aipatu zuen, baita Zamudion bizikletak aparkatzeko atondu den gunea ere, eta esan zuen eskertzekoa dela halako pausoak ematea. "Zerbait da, ea gainerako herrietan ere anitzatzen diren bidegorria atontzera".

Txorierriko bidegorria egiteko eskae-
rak Lezamako trenbide zaharraren ibilbi-
dea berreskuratzeko aspaldiko aldarri-
kapenarekin ere badauka lotura. Bidegorria
Larrabatzutik Sondikaraino joango litza-
teke, errepide nagusiarekiko paralelo. Era
berean, lotura edukiko luke trenbide zaha-
rrarekin, Bilbora joan-etorriak egin ahal
izateko.

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobilak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

BOLALEKU
JATETXEA

Goizetik 1 - LEZAMA
94 455 41 10
Jantzu Facebooken

- Hainbat menu
- Karla
- Ospakizunak
- BOLAPARK

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denominazio Jaurerria

Goiztiotza auzoa, 37
(LEZAMA)
94 455 61 46

Euskaraldia aurkeztu dute



a: Oihane Goienetxe eta Idoia Andrés

Ekimenak hizkuntza ohituretan eragitea du helburu eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean egingo da euskararen lurralde osoan aldi berean. Egitasmoaren protagonistak euskaraz hitz egin edo ulertzeko gai diren 16 urtetik gorako herritarrak izango dira, eta 11 egunetan beren ohiko harreman sareetan euskaraz aritzeko gonbita egingo zaie, inertiari apurtu eta euskararen erabilera bultzatzeko. Herritarrak Ahobizi edo Belarriprest izango dira. Ahobizi ulertzen duten guztiei euskaraz hitz egingo dieten lagunak dira, baita ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo dietenak ere. Belarriprest, berriz, gutxienez euskara ulertzen

duten kideak dira, gainerakoei euskaraz aritzeko gonbidapena luzatuko dietenak.

Euskaraldia maiatzean aurkeztu zuten Larrabatzun eta Derion. Guztira 11 hizkik osatzen dute Euskaraldia hitza, eta Larrabatzun hitz-joko bat erabili zuten euskararen aldeko hamaikakoa aurkezteko; Toti Martinez de Lezea idazlea eta Iñaki Suarez sommelierra, haien artean. Derion ere aurkeztu zuten euskararen hamaikakoa. Horiek herriko hainbat sektoretako lagunak dira; tabernariak, zinegotziak eta ikasleak, tartean. Azaldu zutenek, Hamai-ka kide horiek Euskaraldiko enbaxadoreak dira eta euren ingurunea prestatzeko konpromisoa hartu dute. Zentzu horretan, hamaikako kide bakoitzak beste hamaika kide bilatzeko ahalegina egingo du.

Bizkaia Kopa Trail txapelketa, Loiu

Bizkaia Kopa Trail txapelketaren laugarren etapa Loiu izan zen ekainaren 17an. Saioan 600 lagunek hartu zuten parte hainbat kategoriatan, bai emakumezkoek, bai gizonezkoek. "Aurten bigarren aldiz egin da Loiu eta guretzat ohorea da horrelako saioak gure herrian antolatzea. Lasterketara jende asko hurbildu zen eta giro polita bizi izan genuen egun osoan", esan digu Josu Andoni Begoña alkateak. Kirolariek Loiu zeharkatu zuen ibilbidea egin zuten: Karabizu eta Mantuliz mendiak, Lauroeta eta Zabalotxe auzoak....

Guztira bost kategoria jokatu ziren: martxa laburra eta luzea, trail laburra eta luzea eta mountain bike (MTB). Aipatzekoa da trail luzeari dagokionez, Sondika Kirol Zaleak taldeko mutilak —Mikel Monasterio, Jon Ander Ayestaran, Unai Ibarra eta Iker Santamaría— hirugarren gelditu zirela.

Bizkaia Kopa Trail mendi kirol liga da. Guztira, sei txakur-krosek eta zortzi etapak (mendi-martxa, traila eta MTB-a) osatzen dute liga. Ligako laugarren saioa Loiu egin zen, baina Zamudion ere egingo dute saio bat urriaren 14an. Gainera, Bizkaia Kopak Arrieta, Lemoiz, Morga eta Trapagaran, Lekeitio eta Dima bisitatuko ditu aurten. Bizkaia Kopak sen solidarioa dauka, Gobernu Kanpoko Elkarte batzuekin lan egiten duelako.



ERREKA LONDO
JAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GORBEIA MERTZERIA

Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behe
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

leup! eta Arima txakolinak, sarituak

Maiatzean, Bruselako Nazioarteko Lehiaketa –Concours Mondial de Bruxelles– antolatu zen 25. aldiz. Lehiaketa hori munduko garrantzitsuenetariko bat da ardo mailan, eta epaileek urrezko domina eman zioten leup! Magalarte Lezama upeltegiko txakolinari; eta zilarrezkoa, Arima Gorka Izagirreraren Larra-betzuko txakolinari. Aurten, Txinan egin da eta bertan 48 herrialdetako 9.200 ardok hartu dute parte.

“Oso pozik gaude. Kanpoan gu aintzat hartzea pozgarria da, baina etxean ere baloratu behar gaituzte. Eta horrela egiten dutela uste dugu. Gainera, ziur asko, sariari esker, hemendik aurrera are gehiago estimatuko dute leup! txakolina”, esan digu Andoni Aretxabaleta ekoizleak. “Azken bost urteotan ez diote txakolin bati ere saririk eman. Saria horregatik izan da gozoa, eta hori ardo zuri gaztea kategorian eman digutelako, izan ere, ardo gazte batekin saria irabaztea askoz zailagoa da”.

“Sariek poz handia ekartzen digute Gorka Izagirre upeltegian lan egiten dugun guztioi”, esan du José Ramón Calvo Gorka Izagirre upeltegiko enologoak. “Alde batetik, nazioarte mailan gure lana aintzat hartzen dutelako; eta bestetik, indarra ematen digutelako aurrera egiteko. Gu txakolin ezberdinak egiten saiatzen gara, erroak alde batera utzi barik”.

600 kopa txakolin saldu ziren Lezaman



a: Lezamako Udala

Ekainaren 3an, Lezamako Udalak Txakolinaren Eguna antolatu zuen 17. aldiz. Hori zela-eta, urtero moduan, giro polita egon zen herrian egun osoan zehar. Azokara hurbildu zirenek 2017ko uztia dastatzeko aukera izan zuten. Horretarako, Txorierriko bost upeltegik –Garkalde, Magalarte, Basalbeiti, Erdikoetxe eta Larrabe– euren txakolina eskaini zuten. Guztira, 600 kopa saldu ziren. Gainera, Jagoba Zallo lezamarra aukeratu zuten txakolinaren enbaxadore. “Zenbait elkartetan egiten dut auzolana, ez dakit ezetz esaten (kar, kar). Egun polita bizi izan nuen, bero

handia egin zuen eta txakolin asko edan genuen”, esan digu Jagobak. Enbaxadorea Aikor! aldizkarian ere ibiltzen da laguntzailer.

“Auzolana egitea aintzat hartzekoa da. Eta lezamarra denez, enbaxadore aproposa iruditu zaie txakolingileei”, esan digu Jon Ander Aurrekoetxea alkateak. Alkaterearen esanetan, iaz baino jende gehiago etorri zen Lezamara. “Eguraldi ona egin zuen eta ondorioz, jende piloa etorri zen. Eta ez bakarrik Lezama eta Txorierritik, kanpotik ere bai, eta hori oso pozgarria guretzat”.

OK
OAKLAND
ENGLISH

IKASTARD TRINKOAK, UDAN
MAILA GUZTIAK

946522857
LEHENDAKARI
LEIZAOLA PLAZA, 2
48170 ZAMUDIO

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Garbi-ikusiak, orrikorak
Auzokor konsumitateak
Mantutze garbi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinu ematen gurekin
Bazter bat

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekoa
48160 DERIO (Bizkaia)
loregarbi@euskalnet.net

Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA

MUNGIALDE ETORRIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32

Jarrai lezagu Facebook-en.

astikenemotor
www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txarlet etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48100 DERIO

Txarlet etorbidea, 9-4
94 454 44 09
a.amondarain@euskalnet.net

Arrizabalaga, frontball munduko txapeldunordea

Frontball munduko txapelketa maiztazaren azken asteburuan izan zen Parisen, eta Olatz Arrizabalaga bigarrena gelditu zen bertan. Arrizabalaga Olarreta Larra-betzuko pilota klubean egiten ditu entrenamenduak. Urte ona da pilotari gaztearentzat, aurten Laboral Kutxa Emakume Master Cup irabazi duelako bigarrenenez.

Gernikakoa oso pozik azaldu da Parisen lortutako emaitzarekin. "Egia esan, partida bakar bat irabaztea nuen helburu. Izan ere txapelketa horretara munduko onenak datoz eta nik ez nuen nahi beste entrenatu, unibertsitatean azterketekin gabiltzalako. Baina, tira, ondo joan da azkenean".

Arrizabalagaren esanetan, nahiko gustura ibili zen aurretiko partidetan eta dezente kostatu zitzaion finalaurrekoetan aurrera egitea. "Finala munduko txapeldunaren kontra galdu nuen... Beno, lanak eman nizkien arerioei eta uste dut gustura egoteko moduko txapelketa egin dudala". Olarretako pilotariak iaz ere hartu zuen parte munduko txapelketan, Mexikon, eta bosgarrena izatea lotu zuen han. "Progresioa egon da. Ea hurrengo urtean apur bat gehiago entrenatzen dudan eta txapela lortzen dudan!".

Pilotariak azaldu digunaren arabera, frontball modalitatea 2008. urtean sortu zen. Edozein horma erabil daiteke moda-



litate honetan jolasteko eta bertan bost metroko altuera eta zazpi metroko zabalera duen gune bat markatzen da. Berrogeita hamar zentimetrora-edo txapa ipintzen da. Pilota eskupilotan erabiltzen dena baino arinagoa da eta bote gehiago ematen ditu. Dena dela, pilota aldatu egin dute aurten eta orain lehen baino pisutsuagoa da, eta goma-aparraren antzeko materialaz egindakoa. Eskupilota eta frontball-aren arauak berberak dira, baina, Arrizabalagaren ustez, frontball-a askoz gogorragoa da. "Oso dinamikoa da. Leku txiki batean jolasten da eta leku batetik bestera joan behar da korrika, esprint asko egin... Partidak laburragoak dira, ordu erdi batean amaitu daitezke, baina askoz gehiago nekatzen zara".

Oporretako argazkien lehiaketa

Herrian, munduko beste muturrean, bizitza handiko hiri horretan, gure paradisu txikian... ateratako oporretako argazkiek badute saria, izan ere, Altzora Sondikako euskara elkarteak argazki lehiaketa antolatatu du zortzigarren aldiz.

Lanak uztailaren 1etik irailaren 23ra arte bidali ahal dira altzora.ee@gmail.com helbide elektronikora. Argazkiak jpg formatuan aurkeztu behar dira eta hurrengo datuak ere zehaztu beharko dira: izen-abizenak, telefono zenbakia, e-maila eta argazkia atera den lekua eta data. Nahi izanez gero, argazkiari lotutako izenburua edo esalditxo bat ere idatz daitezke. Parte hartzaile bakoitzak gehienez argazki bi aurkeztu ahal izango ditu. Irabazleak sari biren artean aukeratu ahal du: lagun birentzako bazkaria ala nekazaritza-turismo batean gaua ematea.

Bestetik, lehiaketa nobedadeekin dator aurten. Horrela, eta Altzoratik azaldu duten moduan, orain arte finalistak izan diren argazkiak herriko dendetan ipiniko dira ikusgai.



a: Nahia Eguskizaga

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Uribe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitaratekoak
- Kaxolak

KAFETEGIA
IAZI
JATETxea
Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HAZKITEGIA
URDUTEGIA
IMAZ
MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TLFNOA: 94 454 10 75
DERIO
Eskeirik asko
etortzeagaitik

SARRIKOLA
OGITEGIA
Euskal pastela
Baserriko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Putreek eragin ditzaketen arriskuak ekiditeko neurriak lehenbailehen hartzeko eskatu du EH Bilduk

Joan den hilabetean, talka gertatu zen putre baten eta hegazkin baten artean. Talka Zamudion izan zen eta, putrearen zatiak eta hegazkinaren fuselajearen zati batzuk lurrera erori ziren arren, ez zen on-dorio larrik egon eta hegazkinak arazo barik hartu ahal izan zuen lurra.

Gertaeraren haritik, putreen eta hegazkinen arteko talkek herritarrei ekar diezaiaketen arriskua ekiditeko neurriak lehenbailehen hartzeko eskatu die erakundeei EH Bilduk, eta mozio bana aurkeztu dute Derioko eta Zamudioko Udaletan. Mozio biak baztertu egin dira, dagoeneko instituzioak arazoa aztertzen eta irtenbideak topatzen dabiltzala argudiatuta.

Iñaki Astorkiza Zamudioko EH Bilduko zinegotziaren esanetan, putrearen eta hegazkinaren arteko talka oso gertaera larria izan zen eta halakoek arrisku handian jartzen dituzte herritarrak. Horren haritik, aipatu du Txorierrin, azken urteotan, gero eta putre gehiago ikusten direla, baina erakundeek "beste aldera begiratu dute putre baten eta hegazkin baten arteko talka gertatzeko aukerak oso txikiak zirelakoan. Maiatzeko talka gertatu arte ez dira arazoa aztertzen hasi". Izan ere, Elena Unzuetak, Jasangarritasuna eta Ingurumeneko foru diputatuak, Bizkaiko Batzar Nagusietan azaldu zuen moduan, AENAK iaz 108 aldiz bistaratu zituen putreak Loiu-ko aireportuaren inguruetan, eta aurtén 30 aldiz ikusi ditu.

"AENAREN eta euskal administrazioen arteko koordinazio organoek lehenetsi behar dute arazo hau, eta adituek osatutako ikerketa-taldeak eta lan-egitasmoak sortu. Hori guztia modu gardenean egin behar da, eskubidea dugulako gai hone-taz egiten dena jakiteko. Guztion segur-tasuna dago jokoan", esan du Astorkizak.



Gainera, gogora ekarri du Txorierrin hegazkinak ez ezik abionetak eta helikopteroak ere badabiltzala. Gaia Espainiako Senatura ere eraman da Jon Inarritu EH Bilduko senatorearen eskutik.

Adituen taldea

Bestetik, Igotz López Zamudioko alka-teak eta Txorierriko Mankomunitatearen presidentek esandakoaren arabera, mo-zioa aurrera ateratzeko ez zuen zentzurik, "aireportuak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta hainbat agentek batzordea osatu dutela-ko eta dagoeneko arazoa aztertzen da-biltzalako, neurriak hartzeko eta arazoari konponbidea emateko. Gure lana hori adi egotea da, eta adostutako neurriak bete daitezela ikustea". Azaldu duen moduan, lehenengo eta behin putreak nondik da-tozen aztertuko da eta zergatik hurbil-

tzen diren Txorierriraino. "Gainera, hau ez da bakarrik Loiu-ko aireportuaren arazoa; Estatuko beste aireportu batzuetan ere badituzte arazoak hegaztiekin. Horregatik AENAK, Madrilén, katedralarekin eta adi-tuek osatutako talde egonkor bat ipiniko du martxan, arazoari zelan hel dakioken aztertzeko. Era berean, aireportuko fauna batzordeak urtean antolatzen dituen bile-rez gainera, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta aireportuaren arteko koordinazioa estua-goia izango da, konponbidea topatzeko".

Derioko EH Bilduk antzeko erantzuna jaso du Udaletik. Idatzi baten bidez jakinarazi zieten aireportuko faunari buruzko batzordea bigarren batuko zela maia-tzaren 31ean, eta bilera horretara Udalari ere deitu ziotela. "Oraindik ez dugu bilera horretan esandakoaren berririk, baina guk jarraipena egingo diogu gaiari".

HAUR-MODA
Tximeleta
Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

t o k
t a k
EGUNEKO MENUA
lehenengo platera
bigarren platera
postrea
agie
edaria
9€
Bestorene 5, Behea 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

Jatetxea SAN ISIDRO
EUSKO OKELETAN ESPEZIALIZATUA ETA ETXERO GORRONTZA APARTUA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK
Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki - Sukaldaritza tradizionala
Telefonoa 94 454 07 98
Fax 94 454 14 15
Mungaiate etorbidea, 25
48160 DERIO



Iratxe Azkona Centeno | Distiren artista

Etzerako lanak ondo baino hobeto egin ditu Iratxek aurtan. Argazkilaritzarako grina piztu zitzaionetik argazki ikastaroan ibili da Loiuko liburutegian, eta aurtan El Correo egunkariaren argazki maratoi solidarioan hartu du parte beste ikasle batekin batera. Iratxek "Bilbo: bizitzeko hiria" kategorian irabazi du eta saria kamerako objektibo berri bat erosteko erabiliko du, argazkiak egiten jarraitzeko.

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Distiraren artista
aitatu dogu ta,
Iratxek deuko harra
barruan sartuta.
Gatz da harrapatzea
kamera hartuta
erretratugilea
erretratatuta.

Itallen Bertso Eskola



Goitioltza, 33 bis **LEZAMA**
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com



GOXO-GOXO LOHITZUN

Airratsaldia zabalik
Ogi egunero
Pestalek onkergia



Garaioitza, 77c
48196 Lezama
94 455 42 72
goxogoxolohitzun@hotmail.com

BC FUN
Fitness Gym



Saio pertsonalizatuak,
entrenatzaileen eskutik

BCF entrenamendu
funtzionaleko gunea
(HIIT makinak, kirola funtzionala...)

Taldeko BCF saioak
(zikloa, zumba, fitbox...)

BCF kardiobaskularrak
(high intensity eremua, Indoor triatloia...)

BCF muskulazioa

Ekartu
iragarkia
eta matrikula
DOAN

628836753 - 944520815

3. nabea, 9. lursaila, Ugaldeguren II
48170 ZAMUDIO

ASADOR FUENTENEberria
"lur eta itsasoko baserria"



Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBIZAUZA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
☎ 94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com



t: Itxaso Marina

Zelan izan zen zaleekin berriro elkartzea?

Oso ondo atera zen. Guk oholtzara itzultzeko ikaragarritzko gogoia genuen, eta publikoaren aldetik ere itzela izan zen. Karpa beteta ikusteak asko poztu gintuen. Ez dago hasteko modu hoberik. Hau gure bizitza da, eta batzuetan atsedenaldiak beharrezkoak izan arren, gogorrak ere bada... baina itzulerak beti itzelak!

Kontzertuei dagokienez, zelan dator uda?

Aurreko beste uda batzuen aldean, nahiko lasai dator aurtengoa. Disko berria prestatzen gabiltza eta arreta lan horretan ipintzea erabaki dugu.

Zerbait aurreratuko diguzu lan berri horri buruz?

Lehenengo aldiz produktore batekin gabiltza lanean, eta oso esperientzia aberasgarria izaten ari da. Baina batez ere abestien itxura da ikaragarria. Horrelako pertsona batek asko laguntzen du kan-

FRAN URIAS | Hesian taldeko abeslaria eta gitarra-jotzailea

Oholtza zapaldu gabe sei hilabete eman ondoren, Hesian taldeak 2018ko lehenengo kontzertua eskaini zuen Derioko San Isidro jaietan. Fran Uriasekin aritu gara Sakanako taldeari buruz eta esku artean duten lan berriaren gainean.

tuak biribiltzen eta horiei kolore ezberdinak ematen. Lan handia eskatzen du, baina merezi du..., mereziko du.

Gaurkotasun-gaiak ez ezik gai pertsonalak, sentimenduak ere islatzen dituzue zuen abestietan... Terapeutikoa da hizkiak idaztea?

Beti pentsatu izan dugu abestiak terapia antzeko zeozter direla. Barruan duzuna paperean utzi eta askotan karga horretatik libratzeko modu bat izan daiteke. Mezu positibo bat helaraztea ere gertatzen da, eta jendeak gero mezu hori berarena bihurtzea. Guretzat hori da musikaren alderdirik ederrena. Magia da!

Entzuten oso erraza den musika egiten duzue, rocka, punka eta popa nahasita. Nola lortzen da oreka?

Egia esan, ideiarik ez. Barrutik irteten zaiguna egiten dugu, estiloetan gehiegi pentsatu gabe. Batzuetan disko gogorrak irten zaizkigu; besteetan, adiz, bigunagoak edo poperoagoak... Auskalo hurrengo lana nondik joango den!

Hamabi urte daramatzazue musika munduan, zazpi lan daukazue kalean, hainbat eta hainbat kontzertu eman dituzue... Beti dago zerbait ikasteko?

“Uda nahiko lasai dator; arreta disko berrian ipintzea erabaki dugu”

“Barrutik irteten zaiguna egiten dugu, estiloetan gehiegi pentsatu gabe”

“Begiak itxita sinatuko genuke orain bezala beste hainbat urtetan jarraitzea”



Diskografia

Hesian taldea Sakanan sortu zen 2006. urtean. Rocka, punka eta popa nahasten dituen taldeak zazpi disko kaleratu ditu: *Maite dugu* (2007), *Herriaren oihua* (2008), *Borrokatu eta irabazi* (2010), *Hitzetik* (2011), *Hemen eta orain* (2013), *Hegalak astinduz* (2014) eta *Hesian* (2016). Lan berria laster egongo da kalean.

Taldeak abeslari bi ditu, Zuriñe eta Fran, eta horien bien ahotsen nahasketak taldearen erakargarri handiena da, zalantza barik. Hauek dira taldea gaur egun osatzen duten beste musikariak: Iker, gitarra-jotzailea; Eneko, tronpetak-jotzailea; Iñigo, tronboi-jotzailea, Ane Bastida, baxu-jotzailea; Danel, bateria-jotzailea; eta Aritz Barandí, denerik.

Beti, noski. Eta kontzertuetan eta bestelakoetan ezagutzen duzun jendearengandik ere ikaragarri ikasten da. Aspektu oso ezberdinetan, gainera. Kritikak jasotzen eta onartzen ikasten duzu, eta horietatik paso egiten ere bai, momentuaz gehiago gozatzen, kontzertuez, zeure buruaz, abestiak egiterakoan... Denerik.

Eta 12 urteren ondoren, hainbat aldaketa eta gorabeheren ondoren, zelango momentuan dago taldea gaur egun?

Momentu on batean gaude. Egiten dugunarekin oso pozik eta zoriontsu gaude. Talde barruan ere giro bikaina dago eta familia handi bat osatzen dugu. Ezin gara kexatu. Eta beti aurrera eta gora begiratu behar den arren, uste dut begiak itxita sinatuko genukeela orain bezala beste hainbat urtetan jarraitzea.

Zelangoa da gaur egun Euskal Herrian musika euskaraz egitea?

Konplexua. Oso zaila da laburki definitzea edo aztertzea. Euskal musikak, euskaraz egiten den musikak, eragin handia

du oraindik eta hori pozgarria da. Lekua ere badu nolabait... Badago zirkuitu bat, baita publikoa ere, eragileek edota Udalek kontuan hartzen gaituzte... Bestalde, uste dugu musikak orokorrean daraman norabidea hemen ere badaramagula. Musika mota batzuek leku handiagoa dute: musika dantzagarria, entzuteko errazegia ere sarritan... Hori da dagoena. Norberak erabaki dezake zer entzun eta zer sortu. Guk gurean jarraituko dugu tenkor eta burugogor, nafar jatorrek bezala!

UZTAILAREN 1ETIK
ABUZTUAREN 30ERA

Stressless®
konfortaren
egunak

Jatorria Norway
1934tik

Bosaulki eta sofa erosoak
www.stressless.com

SUIT DELUX
ATZEKO MARKA EKCLUSIBOAK

DERIOKO SEMINARIOA
944 545 147

WWW.SUITDELUX.COM

LEIOA, La Avanzada 80.
944 316 516

t/a: Itxaso Marina

Pozik baino pozago zaudela igartzzen zaizu. Baina urduri?

Ez. Asko gustatzen zait egiten nabilena eta konfiantza handia dut neure buruarengan; beraz, ez dut ez beldurrik, ez dudarik. Hala ere, gerta daiteke azken momentuan urduri ipintzea, noski. Ea kiboren bat ateratzen zaidan... Baina ez jendaurrean abesteagatik. Musikari esker, beldurra galtzen dut; pertsona moduan beldur asko dauzkadalako.

Dena dela, ez da jendaurrean abesten duzun lehen aldia izango.

Bertsioen bat abestu dut tabernetan eta Pentagrama Sondikako elkartearekin kantatu dut. Baita Mugarik Gabeko Dantzak jaialdian ere. Nire abestiak Gaztea maketa lehiaketaren haritik abestu ditut lehenengoz.

Buru-belarri ibiliko zara BBK Live jaialdiko kontzertua prestatzen, ezta?

Arturo nire laguna, produktorea eta dj-a da, eta berarekin batera nabil sei abestiek osatutako EP bat prestatzen. Oraindik ez didate jakinarazi BBK Livekoa zelako kontzertua izango den, baina kantu berri horiek han aurkezteko asmoa dugu.

Abestiak Bartzelonan grabatzen zabilzate.

Arturo hangoa da eta jende asko eza gutzen du bertan. Bartzelonan mugimendu handia dago musikaren inguruan eta berak badaki nora jo.

Gustura egongo zara Gaztea maketa lehiaketara aurkezteko erabakiarekin.

Oso. Lagun batek animatu ninduen lehiaketan parte hartzera, izena emateko epea amaitzen zen egunean bertan, eta bakarrik bederatzi boto-edo lortu nuen arren, epaileek aukeratu ninduten lehiaketan aritzeko eta azkenean finalista izan nintzen. Talde oso on asko ibili ziren lehiaketan, baina zerbait berria aurkeztu genuen eta pentsatu genuen jendeari gustatu lekiokela.

"Bizitza arrunta eduki nahi dut, musika egin eta nire lana errespetatzea"



Lezamarrak Gaztea maketa lehiaketaren 27. edizioa irabazi du aurten, eta sari ekonomikoaz gainera, BBK Live jaialdian kontzertua eskainiko du uztailaren 13an. Ahots bereziko neska da eta aukerak baditu. Musika munduan bere lekua topatzen dabil.

Zer esan nahi duzu "zerbait berria" horrekin?

Ahots-tinbre nahiko berezia daukat, oso entzuna ez dena eta jendeari gustatu ohi zaiona. Batzuek esaten didate gogora Amy Winehouse ekartzen diedala...

Nondik edaten duzu?

Jazzetik, souletik, R&B berritik... Baina popa ere entzuten dut. Egia esan, denetarik. Hemendik eta handik hartzea gustatzen zait. Indiako musika ere badut gustuko.

Zertaz mintzatzen dira zure abestiak?

Maitasunari buruz hitz egiten dut, eguneroko frustrazioei buruz, zoriontasunari buruz... nire sentimenduei buruz, azken batean. Nik abestia ateratzen zaidan moduan abesten dut, eta gero zatitxoak hartzen ditut, abestia berriro idazteko. Orain banabil kantu bat euskaraz idazten.

Gaztelaniaz eta ingelesez ere abesten duzu. Zergatik hizkuntzen nahaste hori?

Eta frantsesez abestea ere gustatuko litzaidake. Hizkuntzaren arabera, muga batzuk edo beste batzuk dauzkat hiztegi aldetik, eta horrek laguntzen dit beti gai berberei buruz ez hitz egiteko. Gainera, hizkuntzekin jolastea gustatzen zait, eta melodiaren arabera, hizkuntza bat bestea baino aproposagoa izan daiteke melodia horretan txertatzeko.

Publikoak ulertuko du hizkuntzen nahaste hori?

Egia esan, ez dut publikoarengan pentsatzen. Nire lana gustatzen zaiona beti egongo da nire alde; eta gustatzen ez zaionak beti edukiko du zerbait kexatzeko. Ni musikan hasi baino ez naiz egin, eta nire lekua eta estiloa topatzen nabil. Horretarako, ahal dudana hizkuntza, esti-

kin-mina tuko dut”

FLISSI VELEZ | abeslaria



lo... guztiekin saiatu nahi dut. Dena dela, jakin-mina sortuko dudala uste dut, eta hori ona da.

Zelan datoz hurrengo hilak?

Kontzertuak emango ditugu ekainean eta irailean, baina, egia esan, orain nahia-go dut arreta BBK Live jaialdian ipini eta plan gehiagorik ez egin... osterantzean, proiektuetan galdu nintekeelako. Gainera, abesti berriei batera bideoklipen bat ere grabatu nahi dut. Nolanahi ere, argi daukat ez dudala neure burua behartu nahi musika kontu honekin. Nik bizitza arrunta eduki nahi dut, musika egin eta nire lana errespetatu dezatela.

Zelan zabilta gertatzen ari zaizuna barneratzen?

Asko gustatzen zait gertatzen ari zaidan guztia. Batxilergoa duela urte bi amaitu nuen eta hurrengo ikasturtean zer ikasi argi ez neukanez, Ingalaterrara au pair joatea erabaki nuen, ea burua argitzen nuen. Musika munduan zebilen jende asko ezagutu nuen eta itzuli nintzenean lagun batek proposatu zidan ezagun baten estudioan saiatzea. Abesti bat grabatu eta “hau da egin nahi dudana” esan nion neure buruari. Gaur egun musika-hezkuntza, kantu eta combo eskola jasotzen dut.

Ristoren begietara begira

Azken hilabeteotan, Hakimaren bideo bat biral bihurtu da. Lezamarrak *Factor X talent show*-ean hartu du parte aurten, eta bere emanaldian *Back to black* abestia begiak itxita zituela abestu zuen. Risto Mejidek, saioaren epaileetarikoa bat, zakar-fama duenak, esan zion abestia bere begietara begira berriro kantatzeko. Saioaren ardura-dunek bideo hori kaleratu dute titulu honen pean: *Hakima, Ristoren begietara begira kantatzea lortu duen bakarra*. “Beno, apur bat esajeratu egin da horrekin. Egia esan, nik gauza gutxi dakit Ristori buruz, eta bera zein besteak pertsona arruntak ziren niretzat. Edozein entzunaldian topatu ditzakezunen modukoak. Egia da zati batzuk moztu dituztela, nik esan niolako: *Orain? Hau beldurra!* Baina, beno, egin behar nuen eta egin nuen, kito. Nolanahi ere, errespeta nabaritu nuen bere aldetik”.



Hakimak bere kanala dauka YouTubean eta saioaren erredaktore bat horren bidez ipini zen harremanetan gaztearekin, eta saioan parte hartzeko proposamena egin zion. “Kuriostatez joan nintzen Madrilera. Castingak gairiditu eta entzunaldia egin nuen, eta dena ondo joan zen. Baina azkenean ez ninduten hurrengo saiorako hartu. Pozten naiz, kamera aurrean ez nagoelako eroso. Urduri ipintzen naiz”.



POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Larbelde Heziketa eta Iragarki Ikastetxeak

Unibertsitatea Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48180 - DEIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea

EUSKO SAHULANITZA **GOBIERNO VASCO**
SERVICIO VASCO DE EMPLEO **RECTORADO DE EDUCACIÓN**

AENOR **GOBIERNO VASCO**
Certificado de Calidad **RECTORADO DE EDUCACIÓN**

PRIMER CENTRO DE FP DE BILBAO
distinguido con la C de oro **Premio Vasco a la Calidad de Gestión**

HERRI ONURAKO
COOPERATIVA DE UTILIDAD PÚBLICA

ikastolenkartea **HETEL**

BATXILERGOA

- Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazio Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
- Produktzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
- Automatizazioa eta Robotika Industriako Goi-mailako Teknikari
- Telekomunikazioa eta Informatikako Sistemako Goi-mailako Teknikari
- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrolako Goi-mailako Teknikari

Alkohol-kontsumoari buruzko sen kanpaina, Sondikako eta Lezama

a: www.elheraldo.hn

Iaz Zamudion eta Larrabetzun egin zuen moduan, aurtten Mankomunitateak alkoholaren gehiegizko kontsumoa prebenitzeko, eta horren inguruan sentsibilizatzeko eta informatzeko kanpaina bat bultzatu du Sondikako jaietan, eta hori Lezamako jaietan ere ipiniko du martxan. Joan den urtean, 317 pertsonak hartu zuten parte kanpainan. Testen % 51,9k positibo eman zuen, eta % 45ek, negatibo. Era berean, hamar pertsona hurbildu ziren informazioa jasotzera.

Kanpaina 00:00etatik 03:30era egiten da, antolatzaileek aukeratutako egun batean. Helburua da jaietan dabiltzan herritarrei alkohol gehiegi edateak dituen arriskuak jakinaraztea, eta horren inguruko kontzientzia zabaltzea. Horretarako,

lazko udan kanpaina Zamudion eta Larrabetzun burutu zen, eta bertan 317 pertsonak hartu zuten parte. Nabarmentzekoa da testen % 51,9k positibo eman zuela; eta % 45ek negatibo. Era berean, 10 pertsona hurbildu ziren informazioa jasotzera.

parte hartzaileek galdetegi bat bete behar dute lehenbizi, eta datu hauek zehaztu: adina, sexua, kontsumitutako alkohol kopurua eta jaietara iristeko erabili duten garraio-bidea. Jarraian, alkoholemia-test bat egiten da, unean bertan egiaztatzeko positibo edo negatibo den (positibo da, odol litro bakoitzeko 0,5 gramo alkohol baino gehiago badago).

Azkenik, eta behin probaren emaitzak ikusita, parte-hartzaileei beren ezaugarriekin bat datorren informazioa ematen

zaie. Honako material hauek banatzen dira, besteak beste: alkohola eta drogak kontsumitzeak sexuaren eta pisuaren arabera dituen eraginak jasotzen dituzten erregeletak, alkohola eta drogak kontsumitu ondoren gidatzeak ekar ditzakeen isunak eta horri lotutako arriskuak jasotzen dituzten txartelak, erabilera bakarreko alkoholimetro kualitatiboak, preserbatiboak eta, beharrezkoa bada, gailetak eta ura, alkoholaren eragina arintzeko.





tsibilizazio- ko jaietan

Datuak

Kanpaina Zamudion eta Larrabetzun egin zen iazko ekainean eta abuztuan. Zamudion 146 pertsonak hartu zuten parte kanpaina, eta % 50ek positibo eman zuen, eta % 47,95ek, negatibo. Larrabetzun, berriz, 171 pertsonak hartu zuten parte, eta % 53,8k positibo eta %42,11k negatibo eman zuen. Nabarmendu daiteke 18 eta 30 urte bitarteko gazteen artean puntu positiboak egon zirela. Esate baterako, autoa hartzeko asmoa zuten 22 pertsonari haien egoeran gidatzeak zein arrisku pertsonal eta legal izan zitzakeen azaldu zitzaizkien, adierazi zuten itxaron egingo zutela edo gidatu baino lehen pentsatuko zutela.

Beste droga batzuei buruzko galderak ere egin ziren: % 34k onartu zuten tabakoa erretzen zutela eta, % 8,77k, Larrabetzun, eta % 13k, Zamudion, kalamua kontsumitzen zutela. Aurten, Eusko Jaurlaritzak diruz lagunduta, kanpaina ekainean egin da Sondikan, eta irailean Lezaman izango da. Horrek egitura bera edukiko du, eta, bere bitartez, alkohola eta drogak kontsumitzean izan behar den arduraz kontzientziatu nahi da.

*Helburua da jaietan
dabiltzanei
alkohol gehiegi
edateak dituen
arriskuak jakinaraztea*

*Parte-hartzaileei
beren ezaugarriekin
bat datorren
informazioa
ematen zaie*



VII. Mihiluze Txapelketa arrakastatsua

Txorierriko Mankomunitateak antolatutako txapelketa honek aisialdian euskara erabiltzea, euskaraz ondo pasatzea eta hizkuntza lantzea du helburu. Hamar eta hamaika urte bitarteko 160 umek hartu dute parte txapelketan.

Aurtengo edizioan, Zamudioko bikotea geratu da lehenengoa (Nerea Dañobeitia eta June Puente); Larrabetzuko, bigarrena (Kimetz Bernaola eta Beñat Cristobal), Deriokoa, hirugarrena (Ane Elorrieta eta Naike Tejada), eta Derioko beste bikote bat, laugarrena (Aner Céspedes eta Maider Montoya). Lau bikoteek familian disfrutatzeko bidaia jaso dituzte. Zorionak guztiei.

Txorierriko adikzioei buruzko eta osasuna sustatzeko 2018-2022rako plana garatuko du herritarrekin

a: www.prnoticias.com

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea adikzioei buruzko eta osasuna sustatzeko 2018-2022rako plana garatzen dabiltza, aurreko ekintzak amaituta baitaude. Plana gaur egungo beharretara egokitzeko, herritarrekin batera egingo du lan. Hori dela eta, datozen asteotan

elkarriketak egingo ditu eta informazioa bilduko du herritarrak ordezkatzen dituzten hainbat sektoretatik. Informazioa aurrez aurre, online, posta elektronikoz eta abarrek bideen bitartez jasoko du.


Plan honen bidez, osasuna sustatu nahi da herritarren artean, bai eta osasunerako hezkuntza eta adikzioen prebentzioa ere. Horretarako, hainbat bilera egiten ari dira adituekin eta beste erakunde batzuekin.



"Gaur egun, Derio bizitzeko moduko herria da"

RAFAEL MENDIA | irakasle erretiratua

Duela 40 urte, Rafaelek maisua izateko oposizioak atera zituen eta Deriora etorri zen lan egin eta bizitzera. Ordutik aurrera, eskolako zuzendaria izan zen, zinegotzia eta, besteak beste, Nahaste-borraste aisialdi taldearen sortzaileetako bat. Rafael aditua da pedagogian baina, batez ere, herriak bizi izan duen bilakaeraren lekuko aparta.



t/a: Gaizka Eguzkitza

Zer dela-eta heldu zinen Deriora?

1978an, oposizioak gainditu nituen eta Deriora etorri nintzen. Txikitan ezagutu nuen, aitarekin Bizkaian zehar txangoak egiten nituelako. Uste nuen herri bukolikoa zela, baina ustea erabat okerra zen (kar, kar).

Nolako Derio topatu zenuen 1978an?

Desastre hutsa zen. Heldu nintzenean, Derio Bilbo barruan zegoen, eta horregatik erabat abandonatuta zegoen, zerbitzurik gabe. Hainbat aldarrikapen egin beharra zegoen eta, horretarako, Mungialde kalean, gaur egun trenbide-pasagunerik ez dagoen bidegurutzean, han batzen ginen. Omenaldia egin beharko genioke bidegurutze horri (kar, kar). Herrian ez zegoen kalerik; ur-hornikuntza ez zebilen behar bezala... Eta eskola, berdin: barrakoi batzuek osatzen zuten eskola; ateak, apurtuta... Negargarria. Hala ere, pertsona ederrak topatu nituen Derion.

Pertsonak aipatu dituzu. Horiei esker hasi zineten herria aldatzen, ezta?

Bai. Harremanetan egon ginen auzokideen elkartearekin, guraso elkarteekin, gurasoen eskola antolatu genuen... Eta guztien artean, hainbat gabezia salatu genituen: mediku-kontsultategia, liburutegi publikoa... Horren haritik, elizako eskaut taldearekin batera, Nahaste-borraste aisialdi taldea sortu genuen. Eskolan lan itzela egin genuen herriaren alde. Esate baterako, inauteriak antolatu genituen.

Iaz, Derioko jaietan, omenaldia jaso zuen Nahaste-borraste taldeak. Hain garrantzitsua izan zen?

Garai hartan, bai. Eskolako jantokia erabiltzen genuen eta Gurasoen elkarteak laguntza eskaintzen zuen: jokoak, zinema, tailerrak... Baina garrantzitsuena monitoreak hezteak izan zen, horrek taldeari jarraitasuna eman ziolako eta, horri esker, belaunaldi berriek taldean sartzeko aukera



ra izan zutelako. Taldea ludoteka bihurtu zen eta azkenean, Udalak bere gain hartu zuen.

Eskola oso garrantzitsua izan zen herrian, ezta? Agian orain baino garrantzitsuagoa?

Eskola komunitatearen ekipamendua da eta horregatik oso harreman estua izan beharko luke inguruan duen errealtatearekin. Gurasoek zeresan handia dute eskolan eta eskolak euren ekarpenak hartu behar dituzte kontuan. Eskola komunitatearen tresna bat da eta gizarte horren beharrezko erantzuna eman behar die. Eta, horretarako, eskola egokitu behar bada, egoki dadila. Curriculumak ez dago hain itxita eta ikasleen eta testuinguruaren arabera diseinatu behar da: horrela, inklusiboagoa izango da. Derion ildo honi jarraituz egin genuen lan.

Politikan ere ibilia zara, 1983tik 1987ra bitartean zinegotzia izan zinelako Udalean.

1983an, Derio desanexionatu zen Bilbotik eta, orduan, gure herria kudeatzen hasi ginen. Alderdi guztiek eskaini zidaten

euren zerrendan sartzeara, baina nik Euskadiko Ezkerra aukeratu nuen. Zergatik politika? Politikak mundua aldatzeko balio du eta, nire ustez, eskola ere bada politika, gizarteak aldatzen duelako. Alderdien politika ez da hain garrantzitsua. Argi nuen politika ez zela inondik inora nire lanbidea izango, alderdian-eta batere eroso sentitzen ez naizelako.

Pedagogia ere ikasi zenuen?

Bai, heziketa teorikoa osatu nahi nuelako. Gogorra izan zen, garai hartan lanean ere banenbiletako. Horrek beste lanbide batera bideratu ninduen. Derioko eskola utzi eta Eusko Jaurlaritzan hasi nintzen lanean: hasieran, irakasleak hezkuntza berezian hezten ibili nintzen; geroago, Eusko Jaurlaritzak egindako hezkuntza bereziaren inguruko batzordearen kidea izan nintzen 1987an; eta jarraian, Irakas Baliabideetarako Etxea (IBE) sortu zen, desgaitasuna duten pertsonak gizarteratzeko, eta hango zuzendaria izan nintzen. Harrezkero, beste lanpostu batzuetan ere ibili nintzen: Curriculumak Eratzeko Institutuan, Irakaskuntza Sistema Ebaluatu eta

*"1978an, Derio
desastre hutsa zen,
baina hemen topatu
nituen pertsonak
ederrak ziren"*

*"Eskola erkidegoko
ekipamendua da
eta horregatik harreman
estua izan beharko
luke herriarekin"*

*"Politikak mundua
aldatzeko balio du
eta eskola ere bada
politika, gizarteak
aldatzen duelako"*

*"Erakundeek dirutza
gastatzen dute
hezkuntza-inklusioan,
baina askotan
ez dakite zer egin"*

*"Guztion artean,
derioztar berriak herriko
bizitzan inplikatzeko
erak bilatu beharko
genituzke"*

Ikertzeko Erakundean eta, azkenik, Hezkuntza saileko aholkulari ibili nintzen, batez ere hezkuntza-inklusio arloan. Eta han hartu nuen erretiroa.

Hezkuntza-inklusioa izan da zure kezka nagusietako bat...

Bai, erakunde publikoek hainbat diru gastatzen dute horretan, baina askotan ez dakite zer egin. Eta horixe izan zen, hain zuzen ere, nire lana: politikariekin hitz egin, inklusioaren aldeko erabakiak hartzeko.

Berrogei urte daramatzazu Derion. Herria hobea da gaur egun?

Bai, askoz hobea. Gaur egun, Derio bizitzeko moduko herri bat da: hornikuntzak, dendak, kiroldegia, Kultur Birika, medikua... Denerik dago. Gainera, hainbat elkarte daude herrian. Hala ere, arazo bi ikusten ditut: batetik, hegazkinek baxu-baxu igarotzen dira herritik, baina etxeak intsonorizatu ditugunez, moldatu egin gara; bestetik, nahiz eta elkarte asko egon, pertsona gutxi hartzen dute parte herriko bizitzan. Eta parte hartzen dutenean, politikariek ez diete jaramon handirik egiten. Eta hori Derion lege hainbat erakunde publikotan gertatzen da. Agenda21 noizbait antolatzen da, baina Udalak horren berririk ez du ematen eta horrek etsipena sortzen die herritarrei, eta parte hartzeko gogoia galdu egiten da.

Derio ikaragarri hazi da azken urteotan. Faltan botatzen duzu lehen zegoen nortasuna eta gauzak aldarrikatzeko gogoia?

Bai. Guztion artean, derioztar berriak herriko bizitzan inplikatzeko erak bilatu

Hausnarketak, hekuntzari buruz

Rafael (Irun, 1945) bost urte zituela Bilbora heldu zen. Gaztetan, Magisteritza ikasi zuen eta Bilboko auzo apaletan –Peñaskal, Uretamendi eta Zabala– hasi zen lanean. Irundarrak elkartasunari eta boluntariotzari lotutako hainbat proiektu garatu zituen. "Caritas elkartearekin egon nintzen harremanetan eta, horrekin batera, udalekuen eta aisialdi-zerbitzua sortu genuen, baita gazte zerbitzua ere. Horren bidez, monitorea hezteko eskola garatu genuen. Gainera, gizarte-bazterketa pairatzen zuten gazteekin bizi izan nintzen".


Gazteak, aisia, hezkuntza, aniztasuna, integrazioa... Rafaelak hainbat ardatzen gainean eraiki du bere karrera. Horien haritik, zenbait liburu eta gida argitaratu ditu, bai bakarrik, bai beste idazle batzuekin. Lehenengoa, *20 Fichas Técnicas para Clubs Juveniles en Acción*, 1973an idatzi zuen; eta azkena, *Aproximación al Enfoque Educativo del Tiempo Libre en el Siglo XXI*, 2008an. Liburuak, hitzaldiak, ikerketak eta bere ibilbidean zehar egin dituen hainbat lan ikusgai daude bere webgunean, www.rafaelmendia.com.

Derioztarra aditua da hezkuntzan eta horren inguruko hausnarketa es-

kaini digu. "Derrigorrezko hezkuntza he-rritar guztiek gainditzeko modukoa izan beharko zen. Curriculumaz aztertu behar da, erabilgarria ez dena –ez bizitzarako, ez goi-mailako ikasketetarako–, handik kentzeko. Hezkuntza guztiontzat ala elitearentzat izan daiteke. Geure sistema, tamalez, bigarrena da, hau da, curriculumaz ez da adosten. Eta gauza asko aldatu beharko lirateke: metodoak, edukiak, ikasle eta irakasleen paperak, eskolako egitura bera...".

Eskola publikoa

Eskola publikoaren eta itunpekoaren arteko eztabaidari buruz ere galde-tu diogu. "Itunpeko eskola gurean egon da betidanik. Ikastola gehienak, esate baterako. Horiei laguntza eman behar diegu? Gai korapilatsua da, baina argi dago baliabideak eman behar dizkiogula publikoari; ez dakit diru gutxiago eman beharko genieken itunpekoei, baina baldintzak zorrotzu behar dira, bien arteko orekari eusteko. Adibidez, gizarte-bazterketa arriskua duten umeak, etorkinak eta desgaituak ere eskola horietan sartzeko. Bestetik, itunpeko eskoletan ikasleek ez lukete kuotarik ordaindu beharko".





beharko genituzke. Elkarleen ereduak ere aldatu da izugarri, bakoitza bere kontuetara doalako. Nor bere zaletasuna lantzeko esparruak baino ez dira. Elkarleak ez dute lehen zuten ikuspuntu orokorrik. Salbuespenak badaude, Sutondoan elkarretea, esate baterako, baina kasu honetan, kideak gero eta nagusiagoak dira.

2006an hartu zenuen erretiroa. Zer egin duzu ordutik hona?

Zerbitzu-ikaskuntza inguruko proiektu batean hasi nintzen lanean, Zerbikas elkarlearekin. Zerbitzu-ikaskuntzaren bidez, gazteek curriculumeko ikasgaiak ikasten dituzte, lan komunitarioa egiten duten bitartean. Adibidez, parke zati bat

babesteko hartzen duten umeak, ibai bat garbitzen duten ikasleak... Ameriketant askotan egiten dute. Horren haritik, nazioarteko mintegi batean parte hartu nuen parte Buenos Airesen. Gainera, euren garatutako Fundazioaren presidente izendatu ninduten, eta 10 urte daramatzagu hori Euskal Herrian bultzatzen.

Irakasleak hezten ere jarraitu duzu?

Bai, gizarte-bazterketa arriskuan dauden gazteekin lan egiten duten irakasleekin ibili naiz lanean, Uruguain, El Abrojo elkarlearekin batera. Ez nuen Pepe Mujica Uruguako presidente ohia ezagutzeko aukerarik izan, baina bai, gaur eguneko, Tabaré Vázquez. Uruguain hezitzaile guztiek kontzientzia politiko handia dute eta hori izugarri gustatu zitzaidan eta aurrera egiteko gogoia eman zidan.

Eta noiz arte?

Gero eta gauza gutxiago egiten saiatzen naiz, baina ezin dut. Osasun aldetik ondo nabilen bitartean, ekarpenak egiten jarraituko dut. Gazteek adintsuok ordezkatu behar gaituzte. Eta horretan nabil, ea gazteak arlo horretara erakartzen ditudan. Argi dut iraungipen-data badudala.

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



UDAKO IKASTAROAK
irailean

MATRIKULA ZABALIK

B1, B2 eta C1
prestatzeko ikastaro trinkoak

Mintzapraktika ikastaroak

Bulego udako orduak:
8:30-13:00

*Erdu geugaz,
egizu euskeraz!*

Lagunakaz eta familiagaz goza daiguzan!

Ekainean tenperatura igo egiten da Loiun, eta ez bakarrik uda datorrelako. Izan be, herriko jaiak, San Pedro eta Santa Luzia, ekainaren 28tik uztailaren 1era bitartean ospatuko dira. Aurtengo jaiek aurreko urteetako eskemari eutsi arren, nobedadeak be ekarriko dabez. Alkateak jaiak familian bizi izateko gonbitea egin dau.

a: Loiuko Udala

"Jaien helburu nagusia hau da: lagunakaz eta familiagaz gozatzea eta gure herria eta bertako jaiak ezagutaraztea; hori bai, gizalegez jokatzu eta pertsonak eta ondarea errespetatuz", esan deusku Josu Andoni Begoña Loiuko alkateak. Udalak egitarau oparoa prestatu dau. "Udalan gagozanok programazino askotarikoaren alde egin dogu: 50 ekintzatik gora eta 11 kontzertu antolatu dira, gure ustez, gustu eta adin guztiak asebeteko dabezanak".

Aurtengo jaiek aurreko urteetako eskemari eutsiko deutsoe: tortilla eta paella txapelketak, kirol jarduerak, musikea... Halanda be, nobedade batzuk be sartu dabez egitarauan. "Batetik, paella egunean kale bat ixten genduan, baina aurtan zabalik itxiko dogu eta etxebizitzetako jabeek aparkalekura sartzeko aukerea eukiko dabe. Beste alde batetik, ur-txirris-ta jarriko dogu txikiak eta ez hain txikiak goza daie. Era berean, zapatu goizean,

jolasak egingo dira errealitate birtualeko betaurrekoak jantzita".

Beste nobedade bat eguen gauerako antolatu dabe: mexikanadak. "Inguru honetan jenteari itzel gustetan jakiez Mexikoko doinuak. Musikari jagokonez, aukera zabala eskaintzen ahalegintzen gara, adin tarte ezbardinak be kontuan hartuta". Alkateak aitatu deuskun moduan, "musika emonaldiak trakzio elementu garrantzitsua izan ohi dira, eta ez bakarrik Loiuko eta Txorierriko herritarrak erakartzeko, baita Bilbo Handikoak hurbiltzeko be". Aurtan 11 musika emonaldi antolatu dira: lehenengoa, jaiak hasi baino lehentxoago,

San Joan gauean, Deabru beltzak taldea. Gainera, Iñaki Basabe, Urtza, Munza eta Ibai disc-jockeyak, ETS, Akatz, Akerbeltz, Five Direction eta Korrontzi be ibiliko dira Loiun.

Musikeagaz batera, paella lehiaketeta da ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa Loiuko jaietan. Orain dala urte bi, Udalak ikusi eban gero eta jente gutxiagok hartzen ebala parte lehiaketan. Beraz, aldaketa bi sartu ebazan: batetik, izena emoteko kuota nabarmen murriztu eban. Lehen 70 eurokoa zan eta, gaur egun, 40 euro ordaindu beharko dau lehiakide bakotzak. Horren truke, lekua eta toldoa eskainiko

"50 ekintzatik gora eta 11 kontzertu antolatu dira, gure ustez, gustu eta adin guztiak asebeteko dabezanak"

"Alkateak funtsezko oinarriak dira herriko jaien garapenean, eta eskertzekoa da euren lana"



EN TOL SARMIENTO

DEABRU BELTZAK

FIVE DIRECTION

AKATZ

KORRONTZI

AKERBELTZ

D.J. IBAT

2018

LOIUKO JAIK

dabez antolatzaileek. Bestetik, lehenengo lau sailkatuek dirua jasoko dabe saritzat -250, 200, 150 eta 100 euro, hurrenez hurren-; eta hurrengo zortziek, opariak. "Erabagi horreei esker, 2016. urtetik hona, urtero, 80 partzelak bete egiten dira. Normalean, 500 pertsonatik gora hurreritzen dira lehiaketara".

Doako autobusa

Alkateak kanpoko lagunak be erakarri gura dauz, eta ildo horri jarraituz, aurtan be eskainiko da doako autobus-zerbitzua Txorierrirako eta Bilborako. "Zerbitzu hori oso ondo baloratzen dabe bai herritarrek, bai bisitatzen gaituenek. Igaz, lagun gutxiagok erabili eben autobusa, baina aurtan be eskainiko dogu zerbitzua, abuztuan Aste Nagusira joateko egiten dogun moduan. Ez dogu gazteek auto partikularrak hartu behar izatea gura, Loiuko jaietara lasai etorri daitezana". Urteerak 22:00etan eta 23:00etan izango dira; eta itzulerak 02:00etan eta 05:00etan. Autobusak Txorierrirako ohiko geldialdiak egingo dauz; era berean, Bilbora doana Ibarrekolandan itxiko dauz bidaiariak.

Antolatze lanetan, oso mesedegarria izan da, urtero legez, herriko taldeen laguntzea: Loiuko Bakarrak, Nagusien Etxea Elkartea, Loiu Laztana, Larrakoetxe Herri Kirol Taldea, Irtzan Pilota Elkartea, Danontzat Elkartea eta Taichi- Li Karate. "Alkar-teak funtsezko oinarriak dira herriko jaien garapenean. Eskertzekoa da euren lana. Harro gagoz euren laguntza eskuzabala euki dogulako".





BATZOKI LOIU

Eguneko menua
 Asteburuko menua
 Menu bereziak
 Bazkariak, enkarguz
 Hamburgesak
 Plater konbinatuak
 Anoak
 Otartekoak

Abadetxe kalea, 8
 LOIU
 Tel. 94 612 95 35

AGROLOIU

DENA BASERRIARENTZAT

946053450



Zabaloetxe et., 12 / 48180 LOIU

Jai-egitaraua

Ekainak 28, eguena

- 14:30 Jubiladuen bazkaria, karpan.
- Gure etxea nagusien alkarteak antolatua.
- 16:30: Bilbainadak, Iñaki Basabegaz, karpan.
- 17:00 Dantza txapelketea, karpan.
- 17:30 Pala txapelketearen finalaurrekoa, frontoian. Irtxan pelota alkarteak antolatua.
- 18:30 Pala txapelketearen bigarren finalaurrekoa, frontoian. Irtxan pelota alkarteak antolatua.
- 20:00 Txupinazoa eta pregoia irakurtzea, karpan.
- 20:00 Goi-Alde dantza taldea, karpan.
- 21:00 Mexikoko abestiak, tabernetan eta txosnetan.

Ekainak 29, barikua

- 11:00 Kalejireia.
- 11:00 Umeentzako tailerrak, karpan.
- Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 12:00 Mezea eta organo kontzertua, Pedro Guallarren eskutik. Eleizan.
- 12:50 Ohorezko aureskua, eleizan.
- 13:00 Triki-poteoa, Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.
- 13:00 Kopaua, Abadetxe kalean.
- 15:00 Gazteen bazkaria, karpan. Loiuko Bakarrak alkarteak antolatua. Gaia: Western.
- 17:00 Pala txapelketearen finalaurrekoa (2. kategoria), frontoian. Irtxan pelota alkarteak antolatua.
- 17:30 Nafarroa Kanta taldea, karpan.
- Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.

-18:00 Pala txapelketearen finalaurrekoa (1. kategoria), frontoian. Irtxan pelota alkarteak antolatua.

-19:00 *Jesús Endemaño cumple 102 años* pelikulea, liburutegian. Loiu Laztana alkarteak antolatua.

-20:00 Club Li Karate Loiu taldearen erakustaldia, karpan.

-21:00 Tortillak aurkeztea, karpan.

-22:30 Kontzertuak: Akatz + Akerbeltz + Dj. Munza.

Ekainak 30, zapatua

-10:00 XIV. Paella txapelketea.

-12:00 Mezea eta organo kontzertua, Miriam Cepeda eta Luis Alberto Requerejoren eskutik.

-14:00 Paellak aurkeztea.

-16:30 Uretako txirristea, aterpearen ondoko errepidean.

-17:00 Mus Txapelketea, aterpean. Loiuko Bakarrak gazte alkarteak antolatua.

-17:30 Paella txapelketearen sariak banatzea.

-18:00 Urtza taldea, landan.

-18:30 Pala txapelketearen finalak (1. eta 2. kategoriak). Irtxan pelota alkarteak antolatua.

-23:00 Kontzertuak, Herriko plazan: Five Direction + En Tol Sarmiento + Dj Ibai Sánchez.

Uztailak 1, zapatua

-11:00 Padel txapelketearen finala (emakumezkoak eta gizonezkoak), padel pistana.

-12:00 Eskupelota txapelketea, frontoian.

-13:00 Txikichef tailerra, Herriko plazan. Danontzat alkarteak antolatua.

-18:00 Magia ikuskizuna, Herriko plazan.

-18:30 Idi-probak, Larrakoetxe herri kirol alkarteak antolatua.

-20:30 Kontzertua: Korrontzi, Herriko plazan.

22:30 Txokolatadea eta Pantxiko erretzea, Herriko plazan.



En Tol Sarmiento taldea

TURREGOITI
JATETXEA
Laurola etorbidea, 27
48180 Loiu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregoit.com

elekma
LARRAZTEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK
TELEBISIAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXUKAK
Lehenengo markak • Preziozko onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY


Txorien etorbidea, 25-3.N. 48180 Loiu
T: 944 539 232
www.elekma.es

sarraila-denda
Txorierri
AGINTUAK SARRAILAGINTZAN ETA SEGURITASUNEAN

946 038 663
625 100 800
info@cearraerriatxorierri.com
www.cearraerriatxorierri.com

Alain Pomposo Zarate
Urdiola, 4 lorja
48160 Deno

Gerrako irudiak



Urkulu mendia



"Gorriek" erretako kamioia. Larrabetzu, Lezama.

t: Ainhoa Larrabe / a: Biblioteca Nacional Española

Biblioteca Nacional Españolak 1936ko gerrako 11.000 argazki baino gehiago jarri ditu sarean eta Txorierriko hainbat irudi daude horien artean. Hilabete honetan, 81 urte bete dira faxistek Burdin Hesia hautsi eta Txorierri bailarako herriak hartu zituztela. Kate luze baten lehen katebegia izan zen ordukoa, lau hamarkada iraun zuen diktadura ekarri baitzuen 1936ko gerrak. Zortzi hamarkada pasatu badira ere, hari mutur ugari argitu gabe daude oraindik, eta ezagutzen ez diren errealtate asko ditugu inguruan. Gure gertuko historiari buruz dugun ezezagutzaren lekukotza ere badira agertzen den argazki edo dokumentu zaharrak. Adibide garbia dira, orri honetan bildutakoak.



Nazionalen bonbardaketa, Burdinazko Gerrikoan





Jose Solchaga Zala jenerala.

Muniainen (Nafarroa) jaio zen 1881ean, eta militar ikasketak egin zituen gaztetan. 1936ko gerran faxisten alde lerrokatu zen: Emilio Molaren agindupean Espainiako Errepublikaren aurka altxatu zen Iruñean. Gipuzkoako kanpainan parte hartu ondoren, Nafarroako Brigaden agintari izendatu zuten 1937ko udaberrian, hain zuzen, Bizkaiaaren aurkako ofentsiban. Ekainaren 11 eta 12ko Larrabetzun izan zen, Burdin Hesiaren aurkako operazioan.

Irudia 1937ko ekainaren 18an atera zen, eta jenerala bere laguntzaileekin dabil bazkaltzen bertan.



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisolo 4, beheka B 48150 SONDIKA **634 410 470**
aузokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol. 48150 Sondika Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

MARMOLGINTZA GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK OARRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind. 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63



Gerrako Iparraldeko Ibilbidea. 1936ko gerra bukatu gabe egon arren, erregimen berria edo "Espania Berria" legitimatzeko neurriak hartu zituen frankismoak. Horietako bat izan zen gerra fronteetatik turismo ibilbidea egi-tea. Historia berreraiki nahi zuten eta propaganda funtsezkoa izan zen bide horretan. Denboraren eta historiako gertakarien jabe egin, eta memoria kolektiboaz baliatu zen estatu berriaren oinarriak sendotzeko: garailea eta garaitua nor zen argi uzteko.



RUBEN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizola plaza, 5
48170 Zamudio
94 452 54 49

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - <http://www.rpmmayoristas.com>

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

Burua eta gorputza lantzea

Doyan Derioko gimnasioak nagusiei zuzendutako Tai-xi eskola eskaintzen du ekainean, uztailan eta irailean. Bertako Udalak diruz lagundutako ekintza da eta parte-hartzaileek ez dute kuotarik ordaindu behar. Asier Rodriguez maisuak Tai-xi egiteak ekartzen dituen onurak azaldu dizkigu.



Eskola astelehenetan eta eguaztenez ematen dute, 10:00etatik 11:00etara. "Egokiena aire zabalean egitea da. Beraz, eguraldi ona badago edo belarra siku badago, Uribe parkean ematen dugu eskola; hala ere, eguraldi txarra edo hotza dagoenean, edo belarra busti dagoenean, Kultur Birikan". Ekintza 60 urtetik gorako lagunei dago zuzenduta eta, Asierrek esan digun moduan, aurren 25 pertsonak eman dute izena bertan. Nagusienak 87 urte ditu. "Eskola hasita dagoen arren, oraindik badago apuntatzeko aukera. Nahi duena Nagusien Etxetik pasatu daiteke arratsaldeetan, eta bertan izena eman". Nagusientzako Tai-xi eskola orain dela zortzi urte inguru ipini zen martxan eta oso arrakastatsua izan da urterik urte. Gainera, hilero dirukopuru txiki bat ordainduta, urteko gainerrako hila batean ere Tai-xi egiteko aukera eskaintzen die parte-hartzaileei Doyan gimnasioak.

Edonork egin dezake Tai-xi; gogoa besterik ez da behar. "Guk yang estiloa egiten dugu, oso leuna dena. Hasteko, artikulazioak berotzen ditugu eta gorputza

arnasketara moldatzen dugu. Bizkarrezurra mugitzen dugu, pelbisa, artikulazioak... Gorputza luzatzen dugu... Eta chi kung ere egiten dugu. Hau da, gorputza mugitzeko ariketak arnasketara egokitzen ditugu, gorputzean bertan zein barruko organoetan energia sortzeko".

Momentuaz jabetu

Tai-xik onura handiak ekartzen dizkio gorputzari zein buruari. "Tai-xi egiten dugunean, arreta handia ipini behar dugu gorputzaren orekan, arnasketan, mugimenduen koordinazioan... Ondorioz, burua bakartu egiten da eta bizi ari garen momentuaz jabetzen gara, eguneroko arazoak eta kezkak baztertuz". Asierren esanetan, gizakiok beti pentsatzen dugu iraganean eta etorkizunean, "eta ahazten dugu zoriona hemen eta orain dagoela. Era berean, hain gaude gustura, ezen denbora berehala pasatzen baita". Arnasa modu kontzientean hartzen da eta birketara eta zeluletara oxigeno gehiago sartzen denez, hobeto sentitzen gara. "Arnasketa zabala, konstantea, dinami-

*Gorputza eta burua
elkarri lotuta daude
eta biak lantzen dira
Tai-xiaren bidez*

koa eta arina bada, lasaiago egongo gara eta hobeto sentituko gara. Baina arnasketa etena eta urduria bada, depresioa eta antsietatea sor daitezke". Gorputzari dagokionez, Tai-xiari esker, oreka handiago edukiko dugu eta gure artikulazioak indartsuagoak izango dira. "Energia mugitzen den kanalekin ere egiten dugu lan. Tai-xi Txinako borroka-arteak da eta mugimendu bakoitzak esanahi bat dauka borroka mailan zein maila terapeutikoan. Tai-xi onura da, osasuna da".

Gorputza eta burua elkarri lotuta daude eta ezin ditugu haiek bereizi. Horregatik biak lantzen ditugu Tai-xiaren bidez. Emaitzak eta onurak egunetik egunera nabaritu daitezke.

Txorierritarrak ere giza katean



a: Aner Mentxaka, Idoia Andres eta Jon Jauregi

Ekainaren 10ean, eta Gure Esku Dago dinamika antolatuta, giza katea egin zen Donostia, Bilbo eta Gasteiz batzeko. Antolatzaileen esanetan, 175.000 pertsonak baino gehiagok hartu zuten parte ekin-tzan eta, eskutik helduta, 202 kilometro batu zituzten erabakitzeko eskubidearen alde. Eta horien artean, 1.500 txorierritar inguru, 105., 106., eta 107. kilometroetan.

Txorierritarrak oinez, bizikletaz eta autobusez hurbildu ziren Erletxetako inguruetara eta, antolatzaileek adierazitakoaren arabera, oso giro ona egon zen goiz osoan zehar. Gainera, pozik azaldu dira txorierritarrek deia emandako erantzunarekin. Arratsaldean, batzuek bat egin zuten Larrabetzun antolatutako festarekin, eta beste batzuk Bilbora joan ziren, bertan aldarrikapenari jarraipena emateko.



Izpilen
PARAFARMAZIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3. lonja - 48150 SONDIKA (Boskai)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

IRATXO
gozotegia

tarta pertsonalizatuak
trufak
leihak
pastelak
pastak

Mikel Zarate, 2 - 5. lonja - Sondiika, 48150 - 94 645 09 19

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Podologia
Kiropraxia

**clínica dental
ZAINDUZ**
hortz klinika

Txorierritarrok, 9 - Lonja | Arteaga eraikina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzainduz.com | www.dentatzainduz.com



ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Peñaketa
Estetika

94 455 81 44
Angulen 2. beheko Larrabotzu-Bizkaia

astikenemotor
ASTIKENEMOTOR
www.astikenemotor.com

DERIO - 946 451 781

Bizi-kalitatea handitzeko konponbide txikiak

Gure ikusmena zaintzeaz gainera, Optica Modernan audilogian ere badi-ra adituak eta zerbitzua 1999tik hona eskaintzen dute Derion. Hala ere, esparru honetan duten eskarmentua aurretik dator, 1994an jadanik laguntzen zieten Barakaldoko optikaren bezeroei entzumen-urritasunak zuzentzen. Beraz, esku hoberik ez dago gure entzumena zaintzeko.

Roberto Gómezek azaldu digun moduan, biztanleen oso ehuneko altuak entzumen-arazoak dauzka, baina ez ditu horiek zuzentzen. "Audiologia zerbitzua entzumen-urritasunak azken belaunaldi-ko audifonoen bitartez zuzentzean datza. Normalean, 55 urtetik gorako lagunek eskatzen dute zerbitzua, baina edozein adinetako pertsonak erabil ditzakete audifonoak, umeak zein gazteak eta helduak".

Audifonoa ipintzeak pazientearen eta bere familiaren bizi-kalitatea hobetzea du helburu. "Entzumen-arazoak dituztenek oso altu entzuten dute telebista, mesfidati bihurtzen dira, senideak oihuka ibili behar dira entzun diezaieten... Xedea da, beraz, bizi-kalitate handiagoa eduki dezatela eta besteengandik bakartu ez daitezela. Entzumen-arazoak kasuen % 99an konpon daitezke".

Pazienteari audiometria bat egiten zaio lehenengo eta behin, hau da, belarri bakoitzetik zelan entzuten duen aztertzen da. "Galera % 30-35 baino handiagoa bada, zuzendu egin behar da. Gainera, belarri bietako entzumen-galera zuzendu behar da, benetako soinu-sentsazioa edukitzeko". Hainbat alderdi hartzen dira kon-tuan audifonoak aukeratzeko orduan: adina, azalaren eta ilearen kolorea, lana eta gaixotasunak, besteak beste. "Tamainu, forma eta estilo asko daude. Gaur egun ia edozein entzumen-urritasun zuzendu daiteke oso gailu txikiak erabilita".

Ordenagailu txikiak

Gaur egungo audifonoak digitalak dira, oso txikiak, eta soinu-kalitate aparta eskaintzen dute. "Ordenagailu txikiak dira. Fabrikatik hutsik datoz eta guk bluetooth bidez konektatzen ditugu ordenagailura, pazienteak behar duen zuzenketa egiteko. Audifonoak hitzen eta zaraten artean bereizteko gauza dira. Hala, pertsonen hitzak altu ipini ahal ditugu, eta trenaren zarata edo umeen

Neurrira egindako belarrietarako tapoiak

Entzumen-urritasunak zuzentzea ez ezik, belarriak urak eragiten dituen infekzioetatik babestea ere bada inportantea. Optica Modernan neurrira egindako belarrietarako tapoiak eskaintzen dituzte. Tapoiak hipoalergenikoak dira eta uraren % 99,9 belarrira sartzea ekiditen dute. "Edozein pertsonak erabil ditzake: ebakuntza egin dieten umeek eta nagusiek, otitis errepikatua dutenek, tratamenduan daudenek, uretako kirolak egiten dituztenek, edo infekzioak prebenitzeko nahi dutenek". Tapoiak edozein koloretan egin daitezke eta urte asko irauten dute. Bikoteak 75 euro balio du.

aldarriak, esate baterako, baxuago. Telebistara ere lotu daitezke, soinua audifonoaren bidez entzuteko, eta ez airetik. Era berean, smartphonera lotu ahal dugu, eta bolumena telefonoa erabilita igo edo jaitsi. Bestalde, urruneko laguntzari esker ez da beharrezkoa pazientearen dendara etortzea gailua doitzera". Horri lotuta, aipatu beharra dago Optica Modernan etxeko zerbitzua eskaintzen dutela.

Audifonoek pila bat erabiltzen dute eta hori astean behin aldatu eta ezkoa gauero kentzea izan ezik, ez dute mantentze berezirik behar. "Ezin dira busti, besterik ez". Robertoren esanetan, oso inportantea da audioprotesilaria hurbil izatea, sor daitezkeen arazoak ahalik eta lasterren konpondu ahal izateko. "Audifonoak hilabete batean probatu ahal dira eta pazienteak behar dituen doikuntzak egin. Gailuak pazientearen beharrianak asetzen baditu, ondo; osterantzean, ez zaio ezer kobratzen". Izan ere, helburua audifonoaren erabilera ohiko bihurtzea da, "egunerokotasunean erabil dadila".

Gama ertaineko audifonoek 1.900 euro inguru balio dute. "Finantza-tu daiteke. Audifono guztiek urte biko bermea dute eta 128 euro ordainduta hori bost urtera luzatu daiteke. Gailuek 5-10 urte irauten dute".



Urtean behin
Egin azterketa



94 454 37 99



Probatu
konpromiso
barik



Audifonoak

Digitalak

Moldatze-bermea

Doako azterketak

ÓPTICA
moderna
Audiología

Aizkorri 1 Derio



Zientzia eta Teknologia denon eskura (eta denon ardura)

Ekain lainotsu honetako 14 eta 15ean Donostian izan den “Euskal Esperientzia Zientzia Zabalkuntzan”⁽¹⁾ #EEZZ18 EHUKo Uda Ikastaroan izan naiz. Egitasmoak aurkezten, eskarmentuak elkarbanatzen, eztabaidatzen, talde terapia egiten eta, inoiz, elkarri mokoka ere aritu gara gai honetan nahastuta gauden hainbat eragile. Aberasgarria dena.

t: X. Díaz, BTEK-eko zuzendaria / a: Innobasque

Bizi garen mundua hobeto ezagutzen laguntzen digu zientziak, iruzurrak detektatzen, erabakiak hartzen. Teknologiaren bidez, gizartean izan ditugun hainbat arazo konpontzeko gai izan gara. Eta ez dira neutroak. Denon mesederako erabil daitezkeen bezala, helburu berekoietarako ere erabil daitezke. Batzuetan ondorio lazgarriak ere badituzte eta, orduan, mezezi duten erabaki beharko dugu. Zeintzuen ikerketa bultzatu behar den, muga etikoak non dauden.... Denon artean erabakiko dugu edo beste batzuek erabakiko dute, horrexegatik da hain garrantzitsua horrelakoetan jantzita egotea... eta horregatik gure helburua: zientzia eta teknologia gizarteratzea.

Lau atal nagusitan banatuta (Zientzia zabaltzeko ekimenen mapa, Zientziaren presentzia hedabideetan, Emakume Zientzialarien Ikusgaitasuna, STEM⁽²⁾ hezkuntza informala) eta beste komunikazio azkar batzuei esker, gure inguruan dau-

kagun aukera askotarikoez jabetu ginen, bai eta hainbat ondorio atera ere. Zenbait azpimarratzearren:

–Gizartea inplikatu beharra dago, partaide eta protagonista izateaz gain erabaki hartzailea izan behar da.

–Zientzia eta Teknologia jakinarazi behar dira. Eta jakinarazi behar dira kasu bakoitzean dugun publikoaren araberrak hizkuntzan.

–Ikerketen arabera faktore askok dute bokazio zientifikoetan eragina, ez dago garbi bakoitzaren pisua zein den. Hori bai, gero eta garbiago dago kultura zientifikoaren umeengan (haur zein lehen hezkuntzan) sustatzearren garrantzia, eta umeek parte hartze aktiboa duten egitasmoen arrakasta.

–Kultura orokorrean eta kultura zientifikoaren bereziki sustatu beharra dago. Eta hortik etorriko da gizarte kultuago, justuago eta libreagoa. Ez dira gizarte aurreratuak zientzian inbertitzen dutenak, aurreratuak dira zientzian inbertitzen dutelako.

–Gizartearen beste arlo batzuetan bezala, oraindik ere genero desparekotasuna

nabarmena da. Beharrezkoa da emakumeen bokazioak bereziki sustatzea eta berdintasuna bermatzea ibilbide profesionalean.

–Elkarlanean aritu behar gara.

–Hobeto gaude, aurrera goaz. Lana egiteko dago.

Bukatzeke, zenbait ekimen nabarmen-tzea gustatuko litzaidake:

Ondarroako Zientziaren Giltzak, Goierriko Lemniskata eta Zarautzko ZarautzON elkarteek euren herrietan hainbat ekin-tza eta hitzaldi antolatzen dituzte urtean zehar. Herriarrek sortutako elkarteak dira kultura zientifikoaren zabaltzeko. Horrelako gehiago behar ditugu, batez ere hiriburuetatik urrun dauden herrietan.

Deustuko Unibertsitateak proiektu bat baino gehiago garatu ditu emakumeen bokazio zientifikoak pizteko. “Inspira” proiektua da arrakastatsuenetakoa. Horren bidez 100 inguru emakume zientzialari zein teknologo 44 ikastetxeko 10-12 urte bitarteko 1.000 neskekin zazpi lan saio egingo dituzte bigarren edizioan. Aholkulariaren eta nesken arteko topaketa horien helburua zientzia eta teknologiko lanbideen inguruan dituzten eragozpenak edo zalantzak argitzen laguntzea da, haien motibazioak argitzea eta, hala nahi badute, ibilbide profesional horri ekiteko behar duten autoestimua sendotzea.

Bertsolaritza eta Zientzia uztartzen dituzten “Jakinduriek mundua erreko dau” saioak, Eureka! eta Laboratorium museoak, EITBko Kosmos atala, Zientzia Kaiera bloga, EHUKo Kultura Zientifiko Katedra, Aranzadi..... Ez dago hemen denetarako lekurik...

Eta oraindik hutsuneak daude. Ekin dezagun ba....



(1) <http://eezz18.dipc.org/>

(2) STEM, Science, Technology Engineering, Maths, Zientzia, Teknologia, ingenieria eta Matematika

Ekaina: suspentsoa ala bikaina?

t: Juan Luis Goikoetxea

Afizioz, ofizioz eta benefizioz irakasle izan garenok, ekaina datorrenean, Josafaten Zelai bihurtzen ditugu ikasgelak, zeinetan artzaina otso larruz mozorrotzen den.

Orain 100 urterik hona, Bizkaiko lurretan jaiotako andre-gizon guztiak joan izan dira eskolara –berez, Moyano legeaz gero, 1857koa–. Nik neuk emakumezko bakarra ezagutu dut eskolarik inoiz zapaldu bakoa, Dolores. Kontatzen zidan, jakin-min bizia sentitzen zuela txiki-denboran eta lagun-txoei itauntzen ziela: “Zer egiten dozue egun guztian han eskola barruan?”

Gaur egun eskola-aroa zibilizazio guztietara zabaldu denean –nahiz eta milioika ume negarraren negarrez afoniko bizi–, ekaina batzuentzat bikaina da, beste batzuentzat ezina; honenbestek 10aren poza erakutsiko dute, beste batzuek gutxi edo oso gutxiren tragedia.

Iker hauts eginda itzuli da ikasgelara, ze hiru gutxi atera dituenek, gurasoek errieta egin diote: “Zertan ibili haiz, mutil?” Tutore naizenez gero, “Hago lasai”–diotsat. “Bai zera! –haren erantzuna– nire etxean bizi egin behar da gero!” “Hala eta guzti, hi lasai” –errepikatu diot–, “gero ere aprobatu heuk egin beharko duk, ez aitak eta amak”.

–“Ez dot balio ezertarako!” –berriz Ikerrek.

–“Handiagorik, Iker! Nor duk kurtso honetan lagunik gehien dituenen, umorea, osasun olimpikoa daukana? Ez egik ikusi sorginik, ez mamurik ez dagoen lekuan. Hik ez daukak psikologoaren terapia kognitiboaren premiarik. Hik badakik heure burua orekaz ebaluatzen. Begiratu egik ingurura, txartoago eta txarrago daudenei, zientzia konparazioan oinarritzen duk-eta”.

–“Bale, Goiko, bale! Ados! Irtengo dut zulo honetatik!”.



a: www.educacionrespuntocero.com


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA
Torrelarragolti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)


Hortz-klinika IDOIA ZUBIETA
Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA
Aritzeta doktorea, 11. - 1. ezk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322
Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

PATXI
KOOP
PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nabarra poligonoa - Euzkara 4. 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel: 944 527 507 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorak + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Zamudion
Elkarte Teknologikoa, 105.
T 94 431 71 36
E zam@cianoplan.es


cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Etxeko sukaldaritza

Zizaz eta ganbaz betetako piperrak

t: Maite Lekerika / a: canalcocina.es

Osagaiak (4-5 lagunentzat):

- Pikillo piper-lata bat.
- 150 g ganba (zurituak).
- 150 g zizak.
- 300 ml esne.
- Koilarakada bat urin.
- 3 berakatz-ale (txikituak).
- Gatza eta orioa.

Saltsea egiteko:

- Kinpula 2.
- Azenari 2.
- 500 ml esnegain.
- Laranja biren ura.
- Gatza eta orioa.

Prestetako area:

Berakatzak txikitu eta frijitu egizu doguz. Gorritu baino lehen, ganbak eta zizak gehituko doguz eta minutu bi inguru eukiko doguz egiten. Urina eta esnea nahasi eta aurrekoari botako deusagu. Gatza botako dogu eta beste minutu bian eukiko dogu egozten, loditu arte. Erretilu batera botako dogu eta hotzitzen itxiko dogu.

Saltsea egiteko: orio-zurrusta baten kipula eta azenariak erregosiko doguz, su ezitan. Biguntzen dira-

nean, laranja-ura gehitu eta irakiten itxiko dogu. Esnegaina eta gatza botako doguz. Ondoren, saltsea irabiatuko dogu suabe lotzen dan arte. Lodiegi lotzen bada, esne apur bat botako dogu.

Azkenik, piperrak betegarriaz beteko doguz eta saltsaz estaliko doguz. Apur bat berotu eta mahaira aterako doguz.



Pantxineta

Osagaiak (8 lagunentzat):

- Hostore-orri 2.
- 150 g almendra.
- Gorringo bat.
- 3 koilarakada azukre-hauts.

Pastel-kremarako: litro bat esne, bost zuringo, 150 g azukre, 70 g arto-urin, 10 g gurin, limoi eta laranja-azalak (zati batzuk), kanela-zotz bat.

Prestetako area:

Pastel-kremea egiteko, lehenengo eta behin, esnetara limoi eta laranja-azalak, kanela-zotza eta gurina botako doguz eta berotu egingo dogu. Esne apur bat hartu eta katilu baten ipiniko dogu. Hara azukrea eta urina botako doguz eta

hagaxka batez eragingo dogu. Ondoren, zuringoak gehituko doguz eta jarraituko dogu eragiten. Ganerako esnea botako dogu katilura eta ondo nahastuko dogu. Nahasia barriro kazolara bota eta kemenez eragingo dogu. Irakiten hasten danean, sua jaitsi egingo dogu eta su motelean uitxiko dogu, harik eta oreka loditzen dan arte. Hozten itxiko dogu.

Labarako erretilu baten labarako papera ipiniko dogu, eta horren ganean, hostore-orri bat. Gorringoa ur apur batez nahasiko dogu eta orearen ertzak igurtziko doguz. Pastel-kremea hostore-orriaren ganean zabalduko dogu eta beste hostore-orriak estaliko dogu. Ertzak ondo itxi eta barriro igurtziko doguz gorringoagaz. Almendrak eta azukre-hautsaren erdia gainetik bota eta labara sartuko dogu. 160 gradutan eukiko dogu 40 minutuan. Labatik atera eta ganerako azukrea botako dogu. Epel aterako dogu mahaira.



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Bazkideak: 144

*Pentsu
naturalak*



LEZAMAKO BATZOKIAK

GARAIOLTZA-AUZOA 1208
946561719
batzokilezama@gmail.com



Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com



Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

Umeen txokoa: 13 desberdintasunak

Ezetz 13 desberdintasunak
topatu irudi bien artean.
Bukatzen duzunean, irudiak
margotu eta moztu ahal dituzu.
a: es.hellokids.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Iruñeko historia* (Pamiela), zenbait egile.
- Euskal grafia (1966-2015)* (Erein), Tomás Hernández Mendizabal.
- Zein usain dute oroitzapenek?* (Erein), Maddi Etxeberria.
- Maitatu zure egunak* (Erein), Pako Aristi.
- Tximeletak bizkarrean* (Susa), Ugaitz Agirre.
- Erreka haizea* (Susa), Sonia González.

LITERATURA: GAZTEAK

- Hiru hartzak* (Pamiela), Xosé Ballesteros, Miguel Tanco (il.).
- Arrarik arra* (Pamiela), Leo Lionni.
- Hamaika andere ausart* (Pamiela), Oli, Helle Thomassen (il.).
- Harri bat poltsikoan* (Erein), Nerea Loiola Pikaza, Rocio Irigoyen (il.).

MUSIKA

- G puntua* (Elkar), Gozategi.

Sudokua

				6	8	5		4
	3	5		7		8		
6			3			2		
					3			6
	7				5	4		
2	4	6		8	7			
	5			2				
					6			
1								8

8	2	7	4	3	5	6	9	1
5	4	6	9	1	7	3	2	8
3	1	9	6	2	8	7	5	4
6	5	3	7	8	1	9	4	2
2	8	4	5	6	9	1	7	3
9	7	1	3	4	2	8	6	5
7	6	2	1	5	3	4	8	9
1	9	8	2	7	4	5	3	6
4	3	5	8	9	6	7	1	2

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Unbe 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

–Especialitate guztiak
zentro bakar batean
–Aurrekontua doan
–Especialitatea:
umeak

Erakusketak

Derio

- > Azterkosta. Uztailaren 3ra arte, Kultur Birikan.

Filmak

Derio

- > Coco. Uztailaren 6an, 22:00etan, Lainomendi kalean; *Inside out*. Uztailaren 20an, 20:00etan, Urkiola kalean.

Ikastaroak

Zamudio

- > Seguru gidatzeko ikastaroa. Uztailaren 7an eta 8an, 10:00etan, Kotxozulo parkean. Zamudio Racing elkarteak antolatua. Informazioa: 679769738 eta zamudioracingelkartea@gmail.com.

Ikuskizunak

Derio

- > Nazioarteko folklore jaialdia: Grupo etnográfico Terras de Cambra (Portugal). Uztailaren 31n, 13:15ean, S. Isidro elizan.

Irteerak

Zamudio

- > Pirinioak (Tuc de Mulleres). Uztailaren 6tik 8ra, Arroeta mendi taldeak antolatua.
- > Hondarribia-Donibane Lohitzune. Uztailaren 14an, Adintsuen elkarteak antolatua.

Lezama

- > Cotiella - Peña Montañesa (Aragoiko Pirinioak). Uztailaren 27tik 31ra, Gailur mendi taldeak antolatua.

Jaiak

Zamudio

- > Santiago eta Santa Ana. Uztailaren 25ean eta 26an, San Kristobal elizan.
- > San Inazio. Uztailaren 31n, S. Isidro elizan.

Kirolak

Zamudio

- > Triala. Uztailaren 21ean, 11:00etan, Zamudio Racing elkarteak antolatua.

Bestelakoak

Zamudio

- > Busti zaitez! Esklerosi anitza duten lagunen aldeko kanpaina. Uztailaren 8an, 10:00etan, igerilekuan.



RADIO TAXI FEMADE

Zure taxi, Teorierikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h 94 480 09 09

ERRESERBAK:

www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A



TAXI FEMADE



Muji
TAILERAK

Inbisa industrialdea
Astintze kalea 6, 16-17 C2 Pabiloia
48160 Derio / Bizkaia
688 847 633 / 946 572 515
iker@mujiailerrak.com

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA

Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)





SANTI MAMI
ALBATARRITZA

Nerea Pedrosa Culo, 517
48009 SANABERRA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

NEURTU ZURE ERAKUNDEAREN HIZKUNTZA EGOERA

6 PAUSOTAN

ZUK ZEUK, AZKAR ETA ERRAZ

BETE ZURE

AUTO-DIAGNOSTIKOA





bai euskarari

baieuskarari.eus

/baieuskarari_ziurtagiria

@baieuskarari

Ziurtagiriaren Elkartea

Lan eta bizi euskaraz

LIBURUDENDA PAPERDENDA

ZAMUDIO

EGUNEROKO PRENTSA, SALGAI

Gorbea kalea, 5
48170 ZAMUDIO

Tlf. / Faxa:
94 452 29 10



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34

Konekta zaitez gurekin!



Facebook:
aikoraldizkaria



Twitter:
@Aikortxorierrri



Instagram:
aikor.aldizkaria



Webgunea:
www.aikor.eus



Zure argazkiak eta albisteak bidali




WhatsApp:
688 86 41 35



E-posta:
aikortxori@aikor.com

Parte hartu aikor.eus webgunean

Erregistratzeko, webgunearen goiko aldean ageri den SARTU botoiari klik egin



ERABILTZAILE BERRIA NAIZ ETA IZENA EMAN NAHI DUT aukeran klik egin

Kide bezala erregistratu nahi baduzu, eta zure **edukiak argitaratzeko** (argazkiak, hitzorduak, albisteak...) erabiltzaile arrunta bezala izena eman behar duzu, eta amaieran, aikortxori@aikor.com helbidera mezua bidali behar duzu zeure nahia jakinarazteko.

LAGATZU EGUNA

EUSKAL JAIA 2018



**Ekainak
30
zapatua**

12:00 BANANGOAK ERRELEBOKA
Kultura Etxean

12:30 BANANGO & PITX
DANTZA SAIO ERRALDOIA
Kultura Etxean eta herri gunetik
BIRIBILKETA

13:00 KALE-JIRA-BIRA
DANTZA-POTEOA
BERTOKO, KANTARELUX,
BERTSOLARIAK, KAMARA KORALA,
HIRU BAT eta GAZTE ALAI

15:00 HERRI BAZKARIA, Kultura etxean
15€ nagusientzat, 10 € umeentzat
Txartelak herriko denda eta tabernetan
salgai. Azken eguna ekainaren
26a, martitzena

17:00 TALDEKA KANTAU, TABERNA IBILTARIAAgaz,
UMEEN JOKUAK ZÜRESKU
egurrezko jolas tradizionalak

20:00 ERROMERIA, TRIKIZIO taldeagaz
Kultura Etxean

MUSIKA KALEAN



Ekainak 29 barikua

20:30ean
Fernan eta Natxo
tabernen artean



Zamudioko
talde
eta herritarren
ezinbesteko
laguntzea be
euki dogu



Animatu eta parte
hartu koadrileagaz
Jantzi zaitez antzinako
euskal erropakaz!